**KULTURA SAILA**

IRAGARKIA, interesdunei Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordearen 2007ko urriaren 4ko Ebazpena jakinarazteko dena. Ebazpen horren bidez, Añanako (Araba) Zambrana-Herran sendiaren Jauregia, Monumentu izendapenaz, Sailkatutako Kultura Ondasun deklaratzeko espedienteari hasiera eman, jendaurrean jarri eta interesdunei entzuten zaie. 30015

**NEKAZARITZA, ARRANTZA ETA ELIKADURA SAILA**

IRAGARKIA, Juan Uranga Aldabaldetreku jaunari Nekazaritza eta Abeltzaintza zuzendariaren 2007ko urriaren 5eko Ebazpena jakinaraztekoa. Ebazpen horren bidez, Juan Uranga Aldabaldetreku jaunari 20/2005 Dekretuan ezarritako baldintzak ez betetzeagatik egin behar ez zitzaion ordainketa bat itzultzeko prozedurari hasiera eman zitzaion. 30016

**DEPARTAMENTO DE CULTURA**

ANUNCIO por el que se notifica a los interesados la Resolución de 4 de octubre de 2007, del Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes, por la que se incoa y se somete a información pública y audiencia a los interesados el expediente para la declaración de Bien Cultural Calificado, con la categoría de Monumento, a favor del Palacio de los Zambrana-Herrán de Añana (Álava). 30015

**DEPARTAMENTO DE AGRICULTURA, PESCA Y ALIMENTACIÓN**

ANUNCIO por el que se notifica a D. Juan Uranga Aldabaldetreku la Resolución de 5 de octubre de 2007, del Director de Agricultura y Ganadería, por la que se acuerda iniciar el procedimiento de reintegro de un pago indebido realizado a favor de D. Juan Uranga Aldabaldetreku por incumplimiento de requisitos establecidos en el Decreto 20/2005. 30016

## Pribatuen Iragarkiak

**CIUDAD JARDÍN ITB**

IRAGARKIA, lehen mailako lanbide heziketako titulua (LH-1) galdu dela jakinarazten duena (adarra: administrazioa; lanbidea: administraria). 30017

## Anuncios Particulares

**ITS CIUDAD JARDÍN**

ANUNCIO por el que se hace público el extravío del Título de Formación Profesional de Primer Grado (FP1), Rama: Administrativa, Profesión: Administrativo. 30017

# Xedapen Orokorrak

## JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

### 7079

213/2007DEKRETUA, azaroaren 27koa, Eusko Jaurlaritzako sailetan, organismo autonomoetan eta erakunde publikoetan berdintasun-politikak bultzatu eta koordinatzeko ardura duten unitate administratiboak arautzen dituena.

Emakume eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 11. artikuluaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak bere egiturak egokitu behar ditu sail bakoitzean, gutxienez, unitate administratibo bat egoteko. Unitate administratibo horiek bultzatu eta koordinatuko dira eta beraien artean elkarlanean jardungo dute saileko zuzendaritza eta arloekin eta sailari atxikitako organismo autonomo, erakunde publiko eta organoekin, aipatutako Legeak agindutakoa eta Eusko Jaurlaritzak emakume eta gizonen berdintasunerako legegintzaldi bakoitzean onartutako planak xedatutakoa betetzeko xedez. Hala,

# Disposiciones Generales

## PRESIDENCIA DEL GOBIERNO

### 7079

DECRETO 213/2007, de 27 de noviembre, por el que se regulan las unidades administrativas encargadas del impulso y coordinación de las políticas de igualdad en los departamentos del Gobierno Vasco, así como en sus organismos autónomos y entes públicos.

La Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres, en su artículo 11, establece que la Administración de la Comunidad Autónoma ha de adecuar sus estructuras de modo que en cada uno de sus departamentos exista, al menos, una unidad administrativa que se encargue del impulso, coordinación y colaboración con las distintas direcciones y áreas del Departamento y con los organismos autónomos, entes públicos y órganos adscritos al mismo, para la ejecución de lo dispuesto en la propia Ley y en el plan para la igualdad de mujeres y hombres que cada legislatura aprueba el Gobierno Vasco. Según lo dispuesto en la Ley

4/2005 Legeak agintzen duenez, unitateek jarrera organiko eta harreman funtzional egokia izan behar dute, eta baita behar besteko aurrekontu-hornidura ere, beren helburuak betetzeko. Ildo beretik, arau-garapenak zehaztuko ditu unitateen eginkizunak eta, Eusko Jaurlaritzako sailez gain, zein organismo autonomikok eta erakunde publikok eduki behar dituzten unitateak erabakiko du.

Bestalde, Legearen 17.3. artikuluaren arabera, emakume eta gizonen berdintasunaren inguruko programak diseinatu eta bultzatu eta aholkularitza teknikoa emateko eginkizuna duten lanpostuak beteko dituen pertsonal teknikoaren esperientzia eta berariazko gaitasuna bermatzea euskal administrazio publikoei dagokie. Hortaz, gaiaren inguruko ezagutzari dagozkion eskakizunak ezarriko dituzte lanpostu horiek betetzeko.

Ondorioz, Emakume eta Gizonen Berdintasunerako Legeak agindutakoa betez, Eusko Jaurlaritzako sailetan berdintasun-politikak bultzatu eta koordinatzeko ardura izango duten unitate administratiboak arautzeari ekin zaio, haien eginkizunak finkatuz, haien pertsonalak izan beharreko gaitasuna zehaztuz eta zein organismo autonomok eta erakunde publikok edukiko dituzten unitateak erabakiz.

Helburu horrekin, Lehendakaritzak hala proposatuta, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren irizpenarekin bat eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2007ko azaroaren 27an eztabaidatu eta erabaki ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

*1. artikulua.*– Helburua.

Eusko Jaurlaritzako sail bakoitzean zuzendaritza, arlo, organismo autonomo eta erakunde publikoekin elkarlanean jarduteko helburua duten unitate administratiboak bultzatu, koordinatu eta arautzea da Dekretu honen helburua, Emakume eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak eta Eusko Jaurlaritzak Emakume eta Gizonen Berdintasunerako legegintzaldi bakoitzean onartutako Planak agindutakoa betetzeko xedez.

*2. artikulua.*– Eginkizunak.

1. artikuluan aipatutako unitate administratiboen eginkizunak honako hauek dira:

a) 4/2005 Legearen 15.2. artikuluan aurreikusitako berdintasunerako planak edo programak proposatzea.

b) Sailaren jarduera-eremuan ekintza positiboko berariazko neurriak diseinatu eta bultzatzea.

c) Dagokion sailaren edo jarduera-eremuaren arau, politika, programa eta ekintzetan genero-ikuspegia txertatzea.

d) Saileko pertsonalari eta, hala dagokionean, sailari atxikitako organismo autonomo, erakunde publiko eta organoetako pertsonalari emakume eta gizonen ber-

4/2005 las mencionadas unidades han de tener una posición orgánica y una relación funcional adecuada, así como una dotación presupuestaria suficiente para el cumplimiento de sus fines y se deja al desarrollo reglamentario la concreción de las funciones de las unidades y la determinación de qué organismos autónomos y entes públicos habrán de disponer, junto con los departamentos del Gobierno, de dichas unidades.

Por otra parte, en el artículo 17.3 de la Ley se establece que las administraciones públicas vascas deben garantizar la experiencia y/o capacitación específica del personal técnico que vaya a ocupar plazas entre cuyas funciones se incluyan impulsar y diseñar programas y prestar asesoramiento técnico en materia de igualdad de mujeres y hombres, estableciendo requisitos específicos de conocimientos en dicha materia para el acceso a las mismas.

En consecuencia, en cumplimiento de lo establecido en la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres se procede a regular las unidades administrativas encargadas del impulso y coordinación de las políticas de igualdad en los departamentos del Gobierno Vasco, concretando sus funciones, especificando la capacitación de su personal y determinando los organismos autónomos y los entes públicos que habrán de disponer de ellas.

En su virtud, a propuesta de la Presidencia, de acuerdo con el dictamen de la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi, y previa deliberación y aprobación por el Consejo de Gobierno en su reunión celebrada el día 27 de noviembre de 2007,

DISPONGO:

*Artículo 1.*– Objeto.

Es objeto del presente Decreto la regulación de las unidades administrativas del Gobierno Vasco encargadas en cada departamento del impulso, coordinación y colaboración con las distintas direcciones y áreas departamentales y con los organismos autónomos, entes públicos y órganos adscritos al mismo, para la ejecución de lo dispuesto en la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres, y en el Plan para la Igualdad de Mujeres y Hombres aprobado cada legislatura por el Gobierno Vasco.

*Artículo 2.*– Funciones.

Las unidades administrativas referidas en el artículo 1 han de ejercer las siguientes funciones:

a) Proponer los planes o programas para la igualdad previstos en el artículo 15.2 de la Ley 4/2005.

b) Diseñar e impulsar medidas específicas de acción positiva en el área de actuación del departamento.

c) Impulsar la integración de la perspectiva de género en las normas, políticas, programas y acciones del departamento o del área de actuación que tenga asignada.

d) Asesorar en materia de igualdad de mujeres y hombres al personal del departamento y, en su caso, al de los organismos autónomos, entes públicos u órganos

dintasunaren alorreko aholkua ematea, batez ere generoaren araberako inpaktuaren aldez aurreko ebaluazioa egin behar duenari eta desberdintasunak desagertzeko eta berdintasuna sustatzeko 4/2005 Legearen 19. eta hurrengo artikuluetan aurreikusitako neurriak txertatzeko ardura duenari.

e) Emakume eta gizonen berdintasunaren printzipioaren aplikazioari buruzko aholkua ematea Sailaren ardurapeko sektoreari, eta gai horrekin zerikusia duten gainerako erakunde eta entitateekin elkarlanean jardun eta jarduerak sustatzea.

f) Saileko pertsonalak eta, hala dagokionean, sailari atxikitako organismo autonomo, erakunde publiko eta organoetako pertsonalak emakume eta gizonen berdintasunaren inguruan behar duen prestakuntzari buruzko diagnostikoak egitea, pertsonalaren gaineko eskumena duten saileko organoekin eta organo orokorrekin elkarlanean. Era berean, eskumena duten organoei kasu bakoitzean beharrezkoa den prestakuntza-mota proposatzea, prestakuntza hori jasotzeko irizpideak eta lehentasunak aintzat hartuta.

g) Berdintasun-politiken garapenaren jarraipena egitea sailean eta, hala dagokionean, sailari atxikitako organismo autonomo, erakunde publiko eta organoetan. Jarraipenaren emaitzen arabera, dauden oztopoak eta desberdintasunak desagertzeko eta emakume eta gizonen berdintasuna sustatzeko neurri egokiak proposatuko dira.

h) Diskriminazio anizkoitza jasaten duten emakumeek oinarrizko eskubide sozialak erabiltzea bermatzeko helburua duten neurriak bultzatu eta proposatzea, sailaren jarduera-eremuan.

i) Saileko organo eskudunari eta, hala dagokionean, sailari atxikitako organismo autonomo edo erakunde publikoko organo eskudunari beren antolakundeen esparruan egon litezkeen balizko diskriminazio-egoerak antzematen, prebenitzen eta desagertzen laguntzea.

j) Emakume eta gizonen berdintasunaren alorrean eskumena duten erakunde, organo eta unitateekin harreman teknikoak izatea eta berdintasun-politiken koordinazio teknikoa egiteko Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeari atxikitako organoetan parte hartzea.

k) Bere jarduera-eremuaren barruan agindu lekiokeen beste edozein.

*3. artikulua.*– Unitate administratiboak organismo autonomo eta erakunde publikoetan.

1.– Sail bakoitzeko unitateez gain, ondorengo organismo autonomo eta erakunde publiko hauetan ere berdintasun-politikak bultzatu eta koordinatzeko ardura izango duten unitate administratiboak egongo dira:

– Eustat-Euskal Estatistika Erakundean.
– IVAP-Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundean.
– HABE- Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundean.

adscritos a aquél y, en particular, a quien en cada caso corresponda la realización de la evaluación previa de impacto en función del género y la incorporación de medidas para eliminar desigualdades y promover la igualdad previstas en los artículos 19 y siguientes de la Ley 4/2005.

e) Asesorar con relación a la aplicación del principio de igualdad de mujeres y hombres a la materia sectorial cuya competencia corresponda al departamento, así como promover actuaciones y colaborar con el resto de instituciones y entidades implicadas en dicha materia.

f) Realizar diagnósticos de las necesidades de formación en materia de igualdad de mujeres y hombres del personal adscrito al departamento y, en su caso, al de los organismos autónomos, entes públicos u órganos adscritos a aquél, en colaboración con los órganos departamentales y generales competentes en materia de personal, así como proponer a los órganos competentes el tipo de formación requerido en cada caso, de acuerdo con los criterios y prioridades de acceso a dicha formación.

g) Hacer un seguimiento del desarrollo de las políticas de igualdad en el departamento y, en su caso, en los organismos autónomos, entes públicos u órgano adscritos al mismo. En función de los resultados de dicho seguimiento, se propondrán las medidas oportunas para eliminar los obstáculos y desigualdades existentes y para promover el avance hacia la igualdad de mujeres y hombres.

h) Impulsar y proponer, en el área de actuación del departamento, medidas dirigidas a garantizar el acceso a los derechos sociales básicos de las mujeres que sufren discriminación múltiple.

i) Asistir al órgano competente del departamento y, en su caso, del organismo autónomo, ente público u órgano adscrito al mismo, en la atención, prevención y eliminación de posibles situaciones de discriminación que se produzcan en el ámbito de sus organizaciones.

j) Ejercer la interlocución técnica con las entidades, órganos y unidades competentes en materia de igualdad de mujeres y hombres y participar en los órganos de coordinación técnica de las políticas de igualdad adscritos a Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer.

k) Cualesquiera otras que le sean encomendadas dentro de su ámbito de actuación.

***Artículo 3.***– Unidades administrativas en los organismos autónomos y entes públicos.

1.– Junto con las unidades de cada departamento, también han de existir unidades administrativas encargadas del impulso y coordinación de las políticas de igualdad en los siguientes organismos autónomos y entes públicos:

– Eustat-Instituto Vasco de Estadística.
– IVAP-Instituto Vasco de Administración Pública.
– HABE-Instituto para la Euskaldunización y Alfabetización de Adultos.

– Euskal Autonomia Erkidegoko Ertzain Akademian.
– Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundean.
– EITB- Euskal Irrati Telebistan.
– Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuan.
– ETS- Euskal Trenbide Sarean.

2.– Aurreko paragrafoan aipatutako organismo autonomo eta erakunde publikoetako unitateek 2. artikuluan aurreikusitako eginkizunak bete behar dituzte, organismo eta erakunde horien jarduera-eremuari dagokionez. Gainerako organismo autonomo eta erakunde publikoen kasuan, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundean izan ezik, atxikita dauden sailetako unitateek hartuko dituzte eginkizun horiek beren gain.

*4. artikulua.*– Unitate administratiboei lotutako pertsonalaren gaitasuna.

1.– 4/2005 Legearen 17.3. artikuluak eta Hirugarren Xedapen Gehigarriko bigarren atalak jasotakoaren arabera, Dekretuaren 2. artikuluan aurreikusitako eginkizunak betetzeko ardura duten unitateetako pertsonal teknikoak emakume eta gizonen berdintasunaren alorreko esperientzia edo/eta berariazko trebakuntza duela bermatu behar dute lanpostu-zerrendek.

2.– Helburu horrekin, sailek eta eragindako gainerako organismo autonomo eta erakunde publikoek lanpostu-zerrendak egokitzeko espedienteari ekin behar diote. Espediente horri Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen txostena erantsi behar diote, lanpostuak beteko dituen pertsonalaren gaitasunari buruz Erakundeak bere iritzia eman dezan.

*5. artikulua.*– Mendekotasun organiko eta funtzionala.

Sail bakoitzaren edo, hala dagokionean, organo autonomo edo erakunde publikoen egitura organiko eta funtzionala erregulatzen duten arauek zehaztuko dute Dekretu honek xede dituen unitateen mendekotasun organiko eta funtzionala. Nolanahi ere, ahal dela, eginkizun horizontalak edo zeharkakoak betetzen dituzten organoetan kokatuko dira unitateak.

XEDAPEN GEHIGARRIA.– Lanpostuen aldaketa.

1.– Funtzio Publikoaren Zuzendaritzak, egon dauden lanpostuak aztertu eta gero, zilegizkoak diren egokitzapenak proposatuko ditu, dekretu honetako 2. artikuluan aurreikusitako eginkizunak betetzeko. Dekretu honek indarra hartzen duenetik aurrera hiru hileko epean, sailek eta erakunde autonomoek, egun erabilgarri dauden baliabideak aintzat hartuz, lanpostuen zerrendan edo monografietan bidezkoak diren aldaketak egingo dituzte, dekretu honek egotzitako erantzukizunei aurre egite aldera.

– Academia de Policía del País Vasco.
– Osalan-Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales.
– EITB-Radio Televisión Vasca.
– Osakidetza-Servicio vasco de salud.
– ETS-Red Ferroviaria Vasca.

2.– Las unidades de los organismos autónomos y entes públicos referidos en el párrafo anterior han de ejercer las funciones previstas en el artículo 2 por lo que respecta al ámbito de actuación de dichos organismos y entes. En el resto de los organismos autónomos y entes públicos, a excepción de Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer, serán las unidades de los departamentos a los cuales estén adscritos quienes asuman sus funciones.

*Artículo 4.*– Capacitación del personal adscrito a las unidades administrativas.

1.– De conformidad con lo establecido en el artículo 17.3 y en el apartado segundo de la Disposición Adicional Tercera de la Ley 4/2005, las relaciones de puestos de trabajo deben garantizar la experiencia y/o capacitación específica en materia de igualdad de mujeres y hombres del personal técnico que vaya a ocupar plazas en las referidas unidades para desarrollar las funciones previstas en el artículo 2 del presente Decreto.

2.– A tales efectos, los departamentos y demás organismo autónomos y entes públicos afectados han de iniciar el correspondiente expediente de modificación de relaciones de puesto de trabajo, al que en todo caso deben de incorporar un informe de Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer, al objeto de que éste emita su parecer por lo que respecta a la capacitación del personal para el desempeño de dichos puestos.

*Artículo 5.*– Dependencia orgánica y funcional.

La dependencia orgánica y funcional de las unidades objeto del presente Decreto será la que se determine en las normas reguladoras de la estructura orgánica y funcional de cada departamento o, en su caso, de los correspondientes organismos autónomos o entes públicos. En todo caso, las unidades deberán estar preferentemente ubicadas en aquellos órganos que ejerzan funciones de carácter horizontal o transversal.

DISPOSICIÓN ADICIONAL.– Modificación de puestos de trabajo.

1.– La Dirección de Función Pública, tras analizar los diversos puestos existentes, propondrá las adecuaciones que procedan en orden a atender las funciones previstas en el artículo 2 del presente Decreto. En el plazo máximo de tres meses, a contar desde la entrada en vigor del presente Decreto, los Departamentos y Organismos Autónomos, con los recursos actualmente disponibles procederán a tramitar las modificaciones correspondientes de la Relación de Puestos de Trabajo y/o de las monografías correspondientes a fin de atender a las responsabilidades atribuidas por el presente Decreto.

2.– Salbuespen modura, dekretu honetako 2. artikuluan aurreikusitako erantzukizunak betetzeko baliabide erabilgarriak gutxi direla Funtzio Publikoaren aurrean egiaztatu ondoren, beste bide bat hartu ahal izango da, hain zuzen ere, EAEko aurrekontu orokorren legeek pertsonal dotazio berriak sortzeko ezarritakoarekin bat etorriz.

3.– Bidezkotzat jotako neurriak hartuko dituzte 3. artikuluan aipatzen diren erakunde publikoetako organoek, euren lanpostuak hiru hileko epean egokitu eta egun erabilgarri dauden baliabideekin dekretu honek egozten dituen erantzukizunak burutzeko.

AZKEN XEDAPENA.– Indarrean sartzea.

Dekretua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2007ko azaroaren 27an.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

2.– Excepcionalmente, una vez acreditado ante la Dirección de Función Pública que los recursos disponibles resultan insuficientes para atender las responsabilidades previstas en el artículo 2 del presente Decreto, se podrá proceder conforme a las previsiones que las correspondientes leyes de presupuestos generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi contemplen para los supuestos de creación de nuevas dotaciones de personal.

3.– Los órganos correspondientes de los Entes Públicos a los que se refiere el artículo 3, adoptarán las medidas oportunas en orden a que en el plazo de tres meses adecuen sus puestos de trabajo a fin de materializar con los recursos actualmente disponibles las responsabilidades atribuidas por el presente Decreto.

DISPOSICIÓN FINAL.– Entrada en vigor.

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 27 de noviembre de 2007.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

## KULTURA SAILA

## 7080

AGINDUA, 2007ko azaroaren 22koa, Kultura sailburuarena, Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakunde Autonomiadunak (HABE) eskaintzen dituen zerbitzuen eta betetzen dituen jardueren prezio publikoak finkatzen dituena.

Euskal Autonomia Erkidegoko tasa eta prezio publikoei buruzko maiatzaren 29ko 13/1998 Legeko 180. artikuluak ematen dizkidan ahalmenen indarrez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak prezio publikoen bidez ordain daitezkeen zerbitzu eta jarduerak zehazten dituen uztailaren 21eko 161/1998 Dekretuaren arabera eta Ogasun eta Herri Administrazio Sailak espediente horren aldeko irizpena eman duela kontuan hartuta, honako hau

XEDATU DUT:

*1. artikulua.*– HABE erakunde autonomiadunak eskainitako zerbitzuengatiko eta berak egindako ondasun eta jarduerengatiko salneurri publikoen zenbatekoa ezartzea.

## DEPARTAMENTO DE CULTURA

## 7080

ORDEN de 22 de noviembre de 2007, de la Consejera de Cultura, por la que se fijan los precios públicos de los servicios que presta y las actividades que realiza el Organismo Autónomo HABE.

En virtud de las facultades que me confiere el artículo 180 de la Ley 13/1998, de 29 de mayo, de tasas y precios públicos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco, y de acuerdo con el Decreto 161/1998, de 21 de julio, por el que se determinan los servicios y actividades susceptibles de ser retribuidos mediante precios públicos en la Comunidad Autónoma del País Vasco, habiéndose informado favorablemente el expediente correspondiente por el Departamento de Hacienda y Administración Pública

DISPONGO:

*Artículo 1.*– Establecer la cuantía de los precios públicos de los servicios prestados por el Organismo Autónomo HABE, así como de los bienes y actividades realizadas por el mismo.